



B. Flowers ikuskizuna Manuel Lekuonan. - Lasarte-Oria Dantzan ekimenaren barruan, "B. Flowers" dantza emankizuna eskaini zuen Marta Carrascoren konpainiak larunbat arratsaldean Manuel Lekuona kultur-etxean. Ordubate inguru iraun zuen obran Marta Carrasco, Anna Coll eta Majo Cordonet antzezle-dantzari kataluniarrek kolorez jantzi zuten areto nagusiko eskenatokia. Mezu asko utzi zituen, irudi politak bezain gogorrak ere bai, oso plastikoa denak. Hurbildu zirenak gutxi izan baziren ere, ikuskizunarekin hunkitzeko aukera izan zuten. Marta Carrascoren konpainiaren lana betetan txundigarria izan zen, aurpegi kerarekin bakarrik, gorpuzarekin, hitzik gabeko sentimentu uholdea sortzeko gai izan ziren. Orain goxo, orain krudel... Ikusleak aretaz jarraitu zituen dantza eta antzerkiaren arteko nahasketa honen bilakaera. Eskenatokia lorez jostia zegoen, larrosa gorriek hartua zuten lurrazal gutzia eta haiek in jokoan ibili ziren hiru dantziariak. Argi-joko ikusgarriak ere egin zituzten, itzalekin jolastuz plastikozko teloi baten atzean. Kontraste handiko obra izan zen, zenbait momentutan gogorra, oso gogorra izatera ere iritsi zen. Baina loreen kolore biziek obrari alaitasun puntua eman zitoten argazkian ikus daitekeen bezala.

3 GIZARTEA

Lotsa alde batera uztako jaialdia azaroaren 30ean

Abenduaren 3an, urritasuna duten pertsonen eguna da. Egun hau ospatzeko, Jalgune elkarteak jaialdi berezia ospatuko du azaroaren 30ean, larunbata. Jende eta ekintza entsalada berezia egin nahi du elkarteak eta guztiak parte hartzeko lotsa galtzea. Jaialdia, eltzekada eta txokolatada izango dira.

4 MERKATARITZA

Lasarte-Oriako I. Pintxo Lehiaketa asteburuan

Aterpea Merkatarien elkarteak Udalarekin batera, Lasarte-Oriako I. Pintxo Lehiaketa antolatuko du azaroaren 29 eta 30 eta abenduaren 1ean. Hamabi tabernetan pintxo bereziak dastatzeko aukera izango da eta herriarrek hauek bozkatu beharko dituzte. Herriko ostalaritza sustatzeko ekimena da.

5 KULTURA

Literatur lehiaketako sariak banatu dituzte

Haur eta Gazteen XXVI. literatura-lehiaketako eta Helduen XXVII. edizioko sariak banatu ziren asteburuan. Kontakizunak, errezitaldiak, argazkiak eta emozioak izan ziren nagusi kultur-etxeko hitzaldi aretoan. Zeremonia Pablo Barriok, Boris Nogalesek eta Xabier Goitiak gidatu zuten.



Bideo Lagunak
TIEN 21
Ekoizpena, merkataritza eta enpresa

gure Facebookeko jarraitzaileekin artean,
erabaki berrak hiru zuzentzatuko ditugu

ZOZKETA
OSTIRALA 13 AM

www.bideo lagunak.com

CARNICERIA
ARANZABAL
HARATEGIA

Etorri gugana
eta
probatu gure kalitateak!

Behi kerra
9,95 €/kiloa.
Kilo batekin,
oilasko bat OPARI

Jaizkibel plaza 11
20160 Lasarte-Oria • Tel.: 943 365156

Adituak dio



Oihana Salazar
Psikologoa

Orain arte, menpekotasuna zenbait sustantzia konkretu sortzen zutela uste zen. Ingurura begiratu besterik ez dago, ordea, beste zenbait arlotan bezala, hemen ere aldaketa eman dela ikusteko. Ez da sustantzia jakinik behar menpekotasuna sentitzeko.

Sustantzia gabeko menpekotasuna asko ditugu gurean: jokatzeara, jateara, lan egiteara, erosteara, ariketa fisikoa egitea, sakelakotik hitz egitea, Internet... Menpekotasuna dagoela esan daiteke: jokamolde horiek gure kontroletik ihes egiten dutenean, behin eta berriz egitea eskatzen dutenean, beste gauza eta jarduererikiko interesa galtzen denean eta ohiko bizimoduaren interferentziak eragiten ditutenean.

Plazerra dakarten ia jarduerara guztiak menpekotasun-sortzaile bihurtu daitezke. Hau da, nahi baino gehiagotan edo baino maizago egiten den jokaera bilaka daiteke konturutzerako. Sarritan, kontrolatzeko edo uzteko gogo edo ahalegin bizia egin arren, zaila gertatzen da jarduera alboratzea. Baramertua izan den oihutarri eutsi egiten zaio, zurrubillonan mugilduta eta aterabiderik ikusten ez bada ere.

Portaera hauetako asko sarritan gizarlean onartuak, eta ongi ikusiak egon daitezke, beraz, zenbait jokabideak kalte egiten digula onartzea ez da erazta izaten. Menpekotasuna dugula onartzea ez da samurra. Ondorioak inguruan zabaltzen direnean soilik eskatzen da egokieraren konkretu batek ateratzeko laguntza. Inguru lehenago jabe-tu arren, banakoak izan behar du dagoen egoera horretatik iterteko nahia. Nahia askotan ez da nahikoa, baina bai ezinbestekoa.

Gura edo desio konkretuak sentitzen direnean, bizipenak zentzu berria hartzen dute, orain artekoa beste era batean egitea posible dela sentitzen da, eta aldaketari bidea irekitzen zaio.

Menpekotasun onartuak

Herriko kaleetan duela aste batzuk honakoa irakurri nuen "altxa begirada teklatutik eta ikusi inguruan zer dagoen". Hizki txiki izaditza zegoen pareta batean eta lehen begiradan ikusten ez den margo horietako bat izan arren, atentzioa deitu zidan. Atentzioa baino gehiago, zer pentsatua eragin zigun ni eta nirekin zihoan lagunari.

Egia esan biek esku artean genuen sakelakoa, hain arrunt-a bihurtu da guretzat keinua, ia oneoro dugu esku artean, poltsikoan... gertu. Menpekotasuna ote! galdetu genion elkarri. Noski erantzuna ezetz izan zen, soilik lagunaren baten mezua ote genuen begiratzen ari ginen... edo agian tweet interesgarriaren bat zegoen txiokatzeko, edota Facebooken gure lagunaren batek tokilatzeak argazki bikaina eskegi zuen... Aitzakiak guztiak.

Egia izango al da gure inguruan zer dagoen ikusi eta mugilduta gaudela teknologia berriek eragin duten zurrubillon horretan?

Teknologia berriek menpekotasun batzuk areagotu dituzte-lada diote adituek. Adibidez, ludopatiari dagoikina, besteak beste apustak egitea eskura dugu inoiz ez bezala, mugikorra edota tabernetan dauden makinak esker edozein partean, kirol probaren emaitzaren alde egin dezakegu. Lehen bideak ez ziren hain errazak eta horri jarri diote areta besteak beste.

Adituaren arabera, utzi ezin dezakegun jokamolde bat da menpekotasuna, egunerokoan interferentziak sortzen ditue-na eta zerbaitek gainontzeko gauzen inguruan interesa galduta arazten digunean. Begirada altxatzen al dugu teklatu-tik?

Hitz eta pitz

Internetek menpekotasuna sortzen al du?



Aitana Ramirez eta Beth Ancizar

Gu engantxatuta gaudete. Bete gaudete mugikorrarekin eta Internet behar beharrezko dugu. Gaur egun lagunekin hitz egiteko erabiltzen dugu, twitter, sare sozialak... Etxean gurusoak ere ibiltzen dira baina bazkaltzeko garaian edo etxekolanak egitekoan mugikorra uzteko eskatzen digute. Etxean mugikorra ahatzen badugu urduri jartzen gara.



Marcos Sanchez eta Beth Ancizar

Heldu eta gazteak gaudete Internetenekin engantxatuta gure ustez. Behar dugun dena mugikor eta Interneten dago gaur egun. Guk ezin gogote Internet gabe bizi, mugikorra ahatzen dugu-nen gaizki pasatzen dugu, zer baita zaizula dirudi. Etxean egonda ere lagunekin gaude denbora guztiaren harremanetan teknologia berriei esker eta ohitu gara.




Ana Iraola

Menpekotasuna ez dakit baina bai orain Internet gabe bizitzea arraroa litzateke. Nik ikusi dut teknologia berriaren ibiltzea eta lehengora bueltatzea zaila egingo litzaidake. Oso erosoa da gauza askotarako eta niri asko gustatzen zait. Egia da gazteek momentuoro behar dutela konektatu- ta egon, mugikorra beti eskuartearen eta agian horretan arreta jarri beharko genuke helduek.



Florian Alonso

Menpekotasuna sortzen duen-ik ez dut uste, agian mutur-erako kasu batzukongo dira. Bestela orokorrean, egia da denak gaudela engantxatu-ta. Hala ere lehen bezala, Internet gabe bizitzea ohitu-ku ginake berri. Gazteen kasian agian sarean dauden edukien erabilera nolabait mugatu beharko litzateke, gauda asko entzuten dira. Erabilera zuzena egitea da niretzat gakoa.



Interneten erabilerrari buruzko albisteak 2001. urtean atera zen, irudi honetatik 12 urte pasa dira.

Iruditan

Internautak

Teknologia berriekiko, Internet, saketakoarekiko menpekotasuna berria diru-dirud. Zenbat urte dira Internet ezagutzen dugula? eta erabiltzen hasi ginetik? Egungo haurrentzan pentsaezina izan daiteke ia ordenagailu gabe bizitzea. 2001eko TXIN-TXARRI -n internauta kopuruari buruz idatzi genuen. 2000. urtean EUSTA-TEK erkidegoan 350.000 zeudela adierazten zuten, biztanlegoaren %14. 2005ean 700.000 ziren eta 2013an dagoenku 1.242.200 erabiltzailetan da kopurua. Aldatu ez dena da sexuen artean alderatuta gizonetakoak direla gehien erabiltzen dutenak sareak.

Diruz laguntzen duten erakundeak

Babeslea



LASARTE-ORIA
UDALA

Txinbarriak ez du bere gain hartuko irizti-artikuluetan edota irakurleen gutunetan adierazitakoaren erantzukizunik.

Laguntzailea



GPKo Kultura eta Euskararen Departamentua

Argitaratzailea:

Tiatkun Elkartea

Celtoki kalea 4

20160 Lasarte-Oria

943 366 858/943 371 448

C-20407557

Legeko gordailua:

SSS13/93

ISSN: 1134-0053

Inprimategia

Zeroa Multimedia, S.A.

Aleak zenbakiko: 7800

txinbarri

Eredakzioa:

Nerea Ezpigue, Maider

Azumendi, Jon Altuna E.

txinbarri@txinbarri.info

Publizitatea eta administrazioa:

Arantza Arriola

publizitatea@itakun.com

administrazioa@itakun.com

Laguntzaileak:

Unai Muñoz, Gorka Lasa,

Ane Labakoa, Maitu Arriola,

Aster Oñativia, Jose M. Hernandez,

Oihana Salazar, Pako Alzoparte,

Edu Galardi

Informatikoa:

Xabier Amador

GIZARTEA

Jaialdi gazi-goza larunbatean

Jalgunek urritasuna duten pertsonaren eguna ospatuko du

Abenduaren 3an, Urritasuna duten pertsonen eguna da. Jalgunek elkarteak urtero legez, egun seinaltatu hau ospatzeko egitarau dibertigarri eta berezia antolatu du azaroaren 30ean, larunbatean.

TXINTXARRI

Jalgunek elkarteak gazte eta begiraleek Gorka Lizarraga Gizarte Zerbitzuakotako buruaren laguntzaz, "Herrian elkarbizi, bai gozo, bai gazi!!!!" jaialdia aurkeztu zuten ostegunean.

Gazteek azaldu zuten moduan, "desberdinak gara eta zer? Gure desberdintasun eta besteen desberdintasun esker, ikasi dugu eta gustuok aurre egin behar diogun erroka gaitu du digu".

"Urtero jende berria ezagutzen dugu, nola garen ikasi nahi duten pertsonak dira. Urtean zehar bizialdia esperientziak azaldu nahi ditugu jaialdi honetan eta ezagun, lagun eta familiaren aurrean berdinak gara eta ez erakutsi nahi dugu," azaldu zuten.

Dibertsitatearen alde

Aurtengo jaialdiak "Herrian elkarbizi, bai gozo, bai gazi!!!!" leloa izango du.

"Jaialdi gazi-goza izatea nahi dugu, Lasarte-Orian dauden zapore desberdinak nahastu daitezten. Gertaerak, iritziak eta gustuak elkarba-



Jalguneko lagunek jaialdian eta batez ere, eltzekadan parte hartzeko gonbita egin zuten.

natzeko pertsona talde anitza da eta batez ere, primeran pasatzeko jendea. Egun honetan ekinntza eta jende entsalada bat egin nahi dugu," azpimarratu zuten agerraldian.

Manuel Lekuonako hasiko da jaialdia arratsaldeko 18:00etan. Honetan elkarteak gazte eta begiraleek emandali berezia prestatu dute. "Emandali hurbiltzeko gonbita egiten dugu eta begiak ireki eta ikustez gain, jaialdian parte hartzeko prest egon daitezten eskatzen diegu," adierazi zuten.

Jaialdia amaitzerakoan, eltzekada egingo dute Okendora arte Dinbi Banda batukadaren laguntzaz. "Dibertsitatearen aldeko eltzekada izango da eta irekia da. Eltze eta goilara bat eraman behar dute honetan parte hartu nahi duten herrita-

rrek. Hauek beharrezkoak dira blokeatzen gaituen latsari aurre egin eta garen bezala agertzeko, iragazkirik gabe, konplexurik gabe, beldurrik gabe," jakin arazi zuten.

Okendora iristean txokolatada izango da. "Iazko esperientzia oso positiboa izan zen eta berritza egingo dugu," azaldu zuten.

Honetaz gain, sorpresa gazi-goza bat ere aurreratu zuten. "Herrian inoz zerbitzatu ez den positib gazi-goza izango da, guztiak batu eta zerura begiratzera behartuko gaituena".

"Esperientzia berri hau gurekin elkarbanatuko duen jendea behar dugu. Gosea duena, soinua atera eta ongi pasa nahi duena". Era honetara, Jalgunek herritar guztiak gonbidatzen ditu azaroaren 30ean izango den jaialdi handira.

TTAKUN ELKARTEA

Talo ikastaroa

Gabonak gertu daude, Santo Tomas egunean hainbesteko arrakasta duten taloak dastatuko dituzte herritar askok zür.

Aurretik ordea urtean behin soilik jan nahi ez dituztenentzat, Talo ikastaroa antolatu du Ttakunek abenduaren 9an. Arrieskalleta elkartearen egingo da 18:00etatik 20:00etara saioa. Parte hartzea irekia da eta Ttakunen izena eman beharko da.

DANOK KIDE

Jaiotza lehiaketako oinarriak prest

Danak Kide elkarteak, aurtur ere, jaiotzen lehiaketa antolatu du. Dagoeneko 21 urte dira lehiaketa antolatzen duela eta parte hartzeko oinarriak aurkeztu ditu.

Betebeharren artean, jaiotzak gehienez, 80x60 zm-ko neuirriak izan behar ditu eta, batez ere, ez da onartuko hondo sendorik ez duen lanik. Aurreko urteetako lehiaketetara aurkeztutako proiekturik ere ez da hartuko. Jaiotzarekin gutun-azal batean egileen izenak sartu eta azallean parte-hartzaile edota taldearen adina idatzita eman behar da.

Sariak 6-9 urte artekoentzat, lehenengoarentzat 60 euro eta bigarenarentzat 40 euro. 10-13 urte artekoentzat, 70 eta 50 euroko sariak daude; 14-17 urte artekoentzat, 90 eta 60 eurokoak eta azkenik, helduentzat 120 eta 90 euroko sariak prestatu dira.

Jaiotzak aurkezteko egunak abenduaren 20 eta 21a izango dira. Danak Kide elkartearen egoitza Blas de Lezo kaleko 11 zenbakian utzi beharko dira 17:00etatik 19:00etara. Lehiaketara aurkezten diren lan guztiak Gabonetan San Pedro elizan izango dira herritarrentzat ikusgai eta irabazleek Muebles Azpeitiko. Abenduaren 29an saribanaketa egingo da.

HITZALDIA

Gutun sozialaren aurkezpena

Bihar, azaroak 26, 18:30ean Villa Mirentxun Euskal Herriko Gutun Sozialaren aurkezpena egingo da Lasarte-Orian.

Maiatzetik Euskal Herriko eragile sozial eta sindikalak Euskal Herriko Gutun Sozialaren eraketa prozesua martxan jarri zuten. Prozesuaren nondik norakoak azaltzeko antolatu da bilera irekia eta herriko eragile sozial zein herritar guztiak animatzen zaie parte hartzera.

SANTA ZEZILIA

Musikaren eguna ospatzen



Santa Zezilia eguna, musikarien sailduaren eguna izan zen ostiralean eta Amalur eskolako txistulariak herriko kaleetatik barrena ibili ziren. Larunbatean, berri, Xumela abesbatzaren txanda izan zen. Kantu jira ederra egin zuten, Zarautz eta Hondarribiko lagunekin batera. Atzo, Alboka abesbatzak ospatu zuten musikarien babeslearen eguna.

Elkarretaratzea gaur, emakumeen indarkeriaren aurkako egunean

Lasarte-Oriako Udalak, azaroak 25, emakumeenganako indarkeriaren aurkako nazioarteko eguna dela eta adierazpen instituzionala onartu du. Era berean, gaur arratsaldean, Okendo plazan egingo den elkarretaratzean parte hartzeko deia egin du.

Adierazpen instituzionala

Adierazpen instituzionalen sexu-erasoak eta, batez ere, neska gazteak jasaten dituzten erasoak gaitzesten ditu Udalak.

"Eraso horietako asko hain daude normalizatu eta hain dira egunerokoak, neska gazteek nekaz ez antzematen dituzkeen" azaldu da adierazpenaren.

Horregatik, "emakumeenganako indarkeria errotik desagerrarazteko lanak, lehenik eta behin, agerian utzi behar ditu indarkeria mota horiek, desberdintasuna eta sexu-indarkeria sustatzen dituzten mezu sexistak antzemanez" dio testuak.

Era berean, "beharrezkoa da, erasoak prebenitzeko erabiltzen diren estrategia, beldurrraren bitartez euren segurtasunaren erantzule izatea saihesten duten mezuak helaraztea neska gazteei" adierazten da.

Eta hezkuntza afektiboa sexuala ere aipatzen da, "beharrezkoa da eurekin beranaz hitz egitea, eraso mota oro prebenitzeko izan behar duten papera

azpimarratuz, eta adierazte euren jarrera existentia euren testuingururen gaineko erantzukizuna izan behar dutela".

Konpromezua

Hau guztiagatik, Udalak bere eskumenen esparruan eta indarkeri legeria aplikatuz, berdintasunaren aldeko eta emakumeenganako indarkeriaren aurkako udal politikak aktibo, oso, parte-hartzaile eta koordinatua garatzeko konpromisoa hartu du, "arreta berezia jarri neska gazteek eta nerabeek jasaten duten indarkerian".

Horretarako, ekimenak abiaraziko ditu, emakumeak, batez ere emakume gazteak, zaurgarritasunari aurre egiteko



Gaur arratsaldean, kontzentrazioa izango da Okendo plazan.

eta jabeakuntza sustatzeko beharrezkoak diren baliabidez hornitzeko.

Aldi berean, jarrera sexistak prebenitzeko eta eguneroko mikro eraso existentziko jarrera aktiboa eta imoa hartzeko lan egingo du.

Ekitzkek aurrera

Era berean, Emakumeen zentroak antolatutako egitarauak aurrera darrar.

Larunbatean, ipuin-kontalaria izan zen Manuel Lekuonako eta gaur elkarretaratzea izango da Okendo plazan.

Lasarte-Oriako I. Pintxo Lehiaketa

Azaroaren 28 eta 29an eta abenduaren 1ean, hamabi taberna izango dira lehiari

Hiru egunetan zehar, azaroaren 29 eta 30 eta abenduaren 1ean, Lasarte-Oriako hamabi tabernetan txapelketa berezia izango da, Pintxo lehiaketa. "Aterpea" Merkataren elkarteak eta Udalak elkarlanean, herriko ostalaritza bultzatzeko ekimena da. Herritarrak izango dira epaileak eta 100 eurotako bi bono zozketatuko da parte-hartzaileen artean. Taberna irabazleak, "Aterpea" elkartearen urteko kuota izango da sari.

TXINTXARRI

Aterpea Merkatarien elkarteak eta Lasarte-Oriako Udalak, Keleren laguntzaz antolatutako lehiaketa da asteburuan gure herrian egingo dena.

"Aterpeak ostalaritza bultzatu eta merkataritza hurbildu nahi zuten. Horregatik, lehiaketa bat egitea pentsatu genuen," azaldu digu Jenni Garcia, Aterpeko lehendakariak.

Gauzak honela, herriko tabernei proposamena egin eta bilera bat antolatu zela aipatu du. "Taberna batzuk gerturatu ziren" aipatu du.

Azkenean hamabi taberna izango dira lehia berezi honetan. "Ez gure taberna kopuru handia izatea nahi, ibilbide moduko bat egin nahi baikenuen. Gainera, jen-

deak pintxo guztiak bozkatu behar ditu".

Arkupe, Avenida, Bueneitea, Galiza, Garakari, Ilargi, Insausti, Iñaki, Lasarte, Trumoi, Txampa eta Viña del Mar tabernak dira parte hartuko dutenak. "Gehienak erdialdean daude, baina hiruzumaburu aldean dira".

Herritarrak epaile

Pintxo txapelketa honetan, beraz, herritarrak izango dira epaile.

Aterpeko lehendakariak azaldu duenez, puntuaketa txartelak eskuragarri izango dira txapelketan parte hartzen duten tabernetan. "Txartelatan puntuaren argazkia eta izena egongo dira. Era berean, plano bat egongo da herritarrek parte hartzen duten tabernei kokalekua jakin dezaten".



Pintxo lehiaketa parte hartuko duten hainbat tabernetako ordezkariak Villa Mirentan bildu ziren aurkezpena egiteko.

"Pintxo-pote berezi bat izango da, lehiaketa ibilbide modura baitago planteatua. Taberna guztietan eskaintza bera izango da, pintxo gehi Keler garagardoa, 2 eurotan," azpimarratu du.

Era honetara, epaile lanak egin nahi duten herritarrek tabernaz taberna joan behar dute, bertako zigilua lortu, pintxoak dastatu eta puntuaketa eman, 1etik 10era.

Zigilu guztiak izan eta pintxoak bozkatu dituztenean, datu pertsonalak jarri eta txape-

lketan parte hartzen duen edozein tabernetan utzi eskurria. "Ez da beharrezkoa persona batek guztiak egitea, biren edo hiruren artean egin daitezke," adierazi du.

Sariak

Pintxo irabazleak aukeratzeko txartel guztietako puntuaketa izango da kontuan. Taberna irabazleari "Aterpea" Merkatarien elkartearen urte osoko kuota ordainduko zaio.

Bestealde, epaimahal lanak egin dituzten herritarrentzat

ere saria izango da, "parte hartzen duten pertsonen artean "Aterpea" dendetan erabiltzeko 100 eurotako 2 txeki zozketatuko dira".

Giroa

Hau guztiak gain, Amalur trikiti eta pandero eskolako lagunak giroten izango dira. "Herrian giro ederra egotea espero dugu".

Horregatik, Aterpeak herritarrak animatu nahi ditu, pintxo lehiaketa honetan parte hartzea.



25+2 urteurrenaren gai giroa izan da nagusi. Behelko argazkia, Rebordinosen bisita.

Glamourrez betetako urteurrena

Okenedo Zinema taldeak bere 25+2 urteurrena ospatu du asteburu honetan

Ostegun gauean, Manuel Lekuonan alfombra gorria zegoen jarria. Izan ere, Okenedo Zienam taldeko urteurreneko lehen saioa izan zen. Honetan Win Wenders-en "Paris, Texas" filma ikusteko aukera izan zen.

Rebordinosen bisita

Baina filmaren aurretik Okenedo Zinema taldeko lagunek ezusteko bat zuten prestatua, Jose Luis Rebordinos, Zine-

maldiko zuzendariaren presentzia.

Rebordinos taldea zoriandu eta Errenteriako zine klubeko hastapenetako oroitza penak azaldu zituen.

Honetaz gain, zine forum formatoa galdu izan zen penatu zen, "gaure egun ez dira filmak ikusi osten komentatzen eta hori pena bat da. Hala ere, hemendik atera eta zerbezta bat eskuari, lagun artean egin dela esnago nuke".

Glamourra

Ostiralean, Kimuak zirkuikuto

film laburretaz gozatzeaz gain, Earra! Bertso eskolako kideen, Kukuak Antzerki eta dantza eskolako antzerki taldearen eta "Tik Tak Klak" Klak taldearen saioak ikusi ahal zituzten Manuel Lekuonara hurbildu zirenek. Fikzioa eta errealtatea nahastu ziren.

Larunbatean, berriz, mozzorro festa ikusgarri izan zen. Herritar ugari hurbildu zen eta glamourra nabari zen Zulo aretoan.

Azkenik, atzo, hurrek "Zarafa" film animatuaz gozatzeo aukera izan zuten.

ADURIZ DE LASARTE S.A

Odolkia- Solomoa ontzuta

Solomoa baraxuritan

Ettxeko txorizoa

Tripakiak- Saltxitxak

Txistorra



Basurde burua

Baserri pateak

BERTAKO FABRIKAZIOA

Loidi Barren kalea 3 • 20160 Lasarte-Oria
Tel.: 943 361278 - 943 361655 - 943 362451



-komertzial instalazioak - beira bikoitza
-segurtasun beirak -dutxa-itxiturak eta irristailuak
-ispiuluak -barandak -kristal mota guztiak...

Oria Etorbidea 4, LASARTE-ORIA 943 37 17 33- 610 45 93 45

Literatur sariak banatu dituzte

Literatur lehiaketako sari-banaketa egin zen larunbat eguerdian, kultur-etxean

Haur eta Gazteen XXVI. literatur-lehiaketako eta Helduen XXVII. edizioko sariak banatu ziren asteburuan. Kontakizunak, errezitaldiak, argazkiak eta emozioak izan ziren nagusi hitzaldi aretoan. Sariaketa amaituta, lunch txiki bat egin zuten maila nagusiko saridunek udal ordezkariekin batera.

Jon ALTUNA EGITEGI

Pablo Barrio alkatea, Boris Nogales kultura, euskara eta hezkuntza zinegotziak eta Xabier Goitia kultur teknikariak egin zuten ekitaldiaren aurkezpena.

Hitzaldi aretoa ia guztiz bete zuten saridunen senide, lagun eta ezagunek. Hauei guztiei ongi-etorria eman ostean, Pablo Barriok sarituak suertatu diren obra guztien izenburuak ardatz hartuta, kontakizun bana egin zuten euskaraz eta gaztelaniaz. Ez da ahaztu behar Barrio alkate idazlea ere badela, eta bere dohainak erakusteko aukera izan zuten bi kontakizun original hauen bitartez.

Sorpresatxo txiki horren ostean ekin zioten sari-banaketaren protokoloari.

Lehenik eta behin, euskarazko poesia errezitatu zuten Aitor Tejedorek, Ivan Moreno gitarrak jolearen akordeek

lagunduta. Irakurritako poesia "Txanponak eta dendaria" izan zen, David Tijeroren "Oinatzen Itzala" obratik hartutako poesia.

Gaztelaniazko poesia berriz, Noemi Fernandezek errezitatu zuen. Ivan Moreoren laguntza izan zuen honek ere. Fernandezek errezitatu-tako pieza "Actualización" izan zen, Julio Ferreren "Mudanzas" obratik ateratakoa.

Txalo zaparrada ozena jaso zuten bi errezitaldiek.

Urduritasuna eta poza

Erezitaldiak amaituta, diploma eta sariak jasotzeko ordua iritsi zen. Saridunen artean urduritasuna zen nagusi, prentsako argazkilariez gain, familiakoak ere argazkiak atera nahian zebiltzan, momentuaren oroi garri bat gordetzeko.

Poza ere nabari zen bai idazle gaztetxo eta ez hain



Sari-banaketa egin orduko, saridun guztiek familia-argazkia atera zuten.

gaztetxoaren artean. Apagarria da Jone Miren Hernandez Txintxarriko zutabegileak Lasarte-Oria saria eskuratu zuela eta baita honen alaba Julenek ere, B kategoriako euskarazko ipuinen hirugarren saria erdietsiz.

Boris Nogales kultura, euskara eta hezkuntza zinegotziak gozorarazi zuten saridun gertatu diren obra guztiak udalaren webgunean irakurgai daudela.



Ivan Moreno gitarrak jolea eta Aitor Tejedor poesia-errezitatzaillea Goitia teknikariarekin.

XXVII. Literatura Lehiaketa

Haur eta gazteen XXVI. Literatura Lehiaketa

Luskarazko poesia

- 1.- David Tijero, Bilbo, "Oinatzen Itzala"
- Gaztelarazko poesia
- 1.- Julio Ferrer Almería "Mundanzas"

A kategoria (1983 eta 1997 urte artean jaiotak)

- Luskarazko mikrokontakizunak
- 1.- Karmele Mixelena, Oiarzun, "Angerua beltza"
- Lasarte-Oria saria
- 1.- Ane Galardi, "Beldia"

B kategoria (1983. urtea baino lehen jaiotak)

- Luskarazko mikrokontakizunak
- 1.- Urt Zubiaurre, Andoain, "Hileta"
- Lasarte-Oria saria
- 1.- Jone Miren Hernandez, "Lana orduko...edo aurretik"
- Gaztelarazko mikrokontakizunak
- 1.- Jesus Jimenez, Madril, "Oro Gorri"

A kategoria (2004 urtean edo ondoren jaiotak)

- Luskarazko ipuina
- 1.- Erhi De Ja Cruz, "Denbolararen makina"
- 2.- Peru Iriondo, "Pelta handiaren bila"
- 3.- Maialen Paris, "Arreba desagertuaren bila"

B kategoria (2001, 2002 eta 2003 urteetan jaiotak)

- Luskarazko ipuina
- 1.- Iasio Illaramendi, "Egun bat lamatu batekin"

- 2.- Nagore Irujola, "Istipua"
- 3.- Julene Iraola, "Letra gabeko liburua"
- Gaztelarazko ipuina
- 1.- Borja Monalejo, "La fuente de la juventud"
- 2.- Maddi Sukunza, "La plama de las manposas"
- 3.- Ainhoa Maiz, "El misterio de radió"

C kategoria (1998, 1999 eta 2000. urteetan jaiotak)

- Luskarazko ipuina
- 1.- Xalba Otxandorena,

"Txoriak sibelean"

- 2.- Naroa Sanzari, "Galzederri galduak"
- 3.- Naroa Sanz, "Coca-Cola besterik ez"

Euskarazko poesia

- 1.- Albia Baile, "Azia moztu ez itzali"



IGERIKETA

Denboraldi hasieran markak hausten

Janire Berasartek Errendimendu Ligako finalean egoteko bigarren marka lortu zuen

Buruntzaldea IKTko igerilariek denboraldia ederki hasi dute. Aurreko bi asteburuetan lehiaketa izan zuten eta daogoneko gaztetxoak taldeko markak, zein marka pertsonalak hausten hasi dira.

TXINTXARRI

Pasa den azaroaren 9an taldeko infantil, junior eta absolutuak Errendimendu eta Partehartzeko ligako 1. jardunaldian izan ziren, Tolosan. Honetan, 29 marka pertsonal berri ezarri ziren eta Gipuzkoako txapelketarako gutxieneko marka bat lortu zuten.

"Denboraldiko momentua kontuan izanda gutxiak oso txukun aritu ziren," azaldu digu Borja Apeztegia Buruntzaldea IKTko entrenatzaileak.

Talde errekorak egin zituzten, hala nola, Jon Ibargreyenek 13 urteko 100 m. estilo eta 50 m. tximeleta probetan; Itsaso Tolosak 16 urteko 1500 m. libreetan 800 m. probako pasean eta proba amaieran eta proba berean Jone Vazquez-ek ere 15 urteko marka berria egin zuen. Nahia Jie Villamedianaek 12 urteko 50 m. bizkar, 200 m. bizkar eta 200 m. estiloak probetan hautsi zituen markak eta Ainara Garciaik 50 m. bular eta 200 m. estiloetan 13 urteko marka hobetu zuen eta 50 m. bizkar eta tximeleta probetan, aldiz, marka pertsonala egin zuen.

Hainbat izan ziren ere, marka pertsonala hobetu zuten igerilariak. Mikel Soto-k 50 m. bular proban, Enara Arrutik eta Amaia Izagirrek 100 m. estiloetan, Unai Irigras-ek eta Jone Oiarzunek 50 m. eta 100 m. libre eta 100 m. estiloetan lortu zituztenen markak, Nora Irazustak 50 m. eta 100 m. libre eta 100 m. eta 200 m. bizkar probetan, Beñat Alkortak 50 m. tximeleta eta 100 m. estiloetan eta Jone Oiarzun-ek 50 m. eta 100 m. libre eta 100 m. estiloetan.

Aipatzeakoak dira Janire Berasarte bi probetan lortu zituen marka pertsonalak. 100 m. libre eta 100 m. estiloetan.

"100 m. libreko markarekin eta lehendik zuen 400 libreko markarekin," Janirek errendimenduko ligan parte hartzeko txartela bereganatu duela azaldu du Apeztegiak.

Nagusienak "denboraldiaren martxaren arabera marka logikoetan aritu ziren," aipatu du.

"Txapelketa saio gogor bat buru zutela azpimarratu du entrenatzaileak eta "denborarekin markak hobetzen ikusiko ditugula ziur gaude".



Buruntzaldea IKTko igerilariek lehen txapelketetan fin daudela erakutsi dute.

KZL

Azaroaren 17an, berriz, gaztetxoek Kirol Zehaztasun ligari hasiera eman zioten.

Lehen urteko benjamin mailan, 2005 urtean jaiotako haurrek 50 m. bizkar proban eta 2004 urteko haur batzuk ere 50 metro libreko proban parte hartu zuten. Andoni Irazu 2004 urtekoen artean hirugarren izan; 2005 urteko artean, berriz, Unai Barcina eta Nora Imaz izan ziren azkarrenak.

2004 urteko gainontzeko igerilariak, berriz, 100 m. bizkar proba izan zuten. Aintzane Sarobe bigarren sailkatu zen. Mutiletan, taldeko azkarrena Eneko Elizasu izan zen hirugarren sailkatuz.

Bestalde, errelebo mistoak izan izan zituzten maila honetan, 6x25 m. estilo librean.

Emaitzak gain, balorazio oso positiboa egiten du entre-

natzaileak "haurrek distantziak arazotik gabe burutu zituzten baita arautegiaren inguruko baldintzak ere".

Alebin maila

Alebinek ere adinarean arabera proba desberdinak izan zituzten. Lehen urteko alebinek 50 m. bular eta 200 m. bizkar probak izan zituzten eta bigarren urtekoek aldiz 100 m. bular eta 200 m. bizkar probak.

Lehen urtekoen artean, nesketan lehen hiru postuetan Buruntzaldea IKT-ko kideak izan ziren. Lehenengo Leire Martin, bigarren Ainhoa Martin eta hirugarren Aiora Casado, "hirurak ere, benetan marka onak eginez".

Adin honetako nesken 200 m. bizkar proban ere Leire eta Ainhoa Martin izan ziren lehen bi sailkatuak. Gainera,

Leirek 10 urteko taldeko errekor berri bat ezarri zuen.

2003 urteko mutilen artean Unai G. Somovilla izan zen azkarrena 50 m. bular proban. Unai bigarren izan zen eta 10 urteko taldeko errekor berri bat ezarri zuen.

2002 urtekoen artean, bi probetan Lander Sorozabal izan zen mutilen azkarrena. 200 m. bular proban, gainera hirugarren izan zen eta taldeko marka hautsi zuen.

Bigarren urteko alebinen artean bi probetan azkarrena Irati Arzalluz izan zen, bietan lehenengo postua lortuz.

Mutiletan, 100 m. bular proban Jon Soto hirugarren izan zen eta 200 m. bizkar proban laugarren. Bietan talde errekorra egin zuten, baita 50 libre proban eta erreleboko pasean.

Saioa amaitzeko alebinek 4x50 libre erreleboan izan zuten. Nesketan, Irati Arzalluz-ek, Nerea Calvo-k, Nerea Garcia-k eta Leire Martin-ek osatutako taldea nagusi izan zuten. Mutiletan talde batek Jon Soto, Xabier Alonso, Unai G. Somovilla eta Lander Sorozabalen taldeak bigarren postua eskuratu zuten.

Ondorioz, "orokorrean benetan gustura gure igerilari txikiiek egindako txapelketarekin. Bereziki aurten hasi berriak direnekin," onartu du Apeztegiak.

PILOTA

Intza Gipuzkoako txapelketako finalean izango da

Partida zaila, trabatua izan zen larunbat arratsaldean Kirol guneko pilotalekuan Intzako mutilek jokatu zuten. Ezker Hormako Gipuzkoako txapelketako finalerako txartela zegoen jokoan eta Intzako jubenilek majo sufriruta lortu zuten finalerako txartela. Azken emaitza 22-16koa izan zen.

Lasarte-Oriako bikote gazteak, Axier Artea eta Mikel Aranguren, Aurrera Saiatzeko Txapuso-Aburuzatik bikotea izan zuten aurrez aurre.

Asko kosta zitzaizen irabazteko. Axier Artea eskuetatik larri samar dabil eta jokatu gehiegi sartu behar izan zuten Aranguren atzelariak ez ziolako atzeko koadroetan behar beste lagundu. Den den, txar-

pela janzteko aukera izango dute datorren astean.

DV txapelketatik kanpo

Bestalde, DV txapelketako promesa mailan, Axier Artea-ga lasarteoriatarra final-laurdenetan kanporatua izan zen azaroaren 15ean.

Partida ederra izan zen Soraluzen azaroaren 15ean jokotutakoa. Artea-ga eta Xanet Imazek Aluna eta Martija izan zituzten aurrez aurre eta 21-22 galdu zuten.

Partida oso berdinduan, bi aurrelariak lan ederra egin zuten. 4-6 aurre hartu zuten Artea-ga eta Imazek baina Aluna eta Martiak momentu batean 13-6 jartzera lortu zuten. Pixkanaka, marka-



Axier Artea-ga aurrelaria pilota bixkitzen, sekulako ezker besoa du herritarra.

gailua berdintzea lortu zuten Artea-ga eta Imazek eta 21-21koan izan. Baina azken tantaoan Altunaren pilotakadak, gantxo batek erabaki zuten partida.

Jose Felix Solanok Intzako

arduradunak adierazi digunez, "zorte txarra izan zuten. Partida osoan zehar ez zuten Altunak gantxo ederrik egin eta azken tantaoan izan behar. Pena handia da Axier finalean ez egotea".

LABURRAK

Asier Olmos atleta seigarren Irunen

LOKEKO atletak krosek denboraldia hasi zuten azaroaren 17an, igandea.

Lehen proba XLV Irungo Hiria kroa izan zen. Honetan Asier Olmos kadeteak euria eta hotzari aurre eginez, 6. postuan amaitu zuten lasterketa.

Bestalde, Landaberri ikastola, Landaberri BHI eta Sasoteta-Zumaburu ikastetxe-ko gaztetxo infantil eta alebin mailako proba libreetan parte hartu dute.

Amia Andresen zuzendaritzapean martxoetik aurrera izango dituzten txapelketetarako prestatzen ari dira gaztetxoak buru belarri.

Hurrengo larunbatean, benjaminen txanda izango da. Gaztetxoan atletisimoko lehen proba izango da.

Agenda

Astelehena 25-Osteguna 28, 19:00etan, Manuel Lekuona kultur-etxea



Dagoeneko 21 urte dira, Lasarte-Oriako Udalak herri-tarren osasuna hobetze aldera, Osasun jardunaldiak antolatzen dituen. Aurten zahartze aktiboa izango da gaia eta lau egunez, aditu desberdinek hiru eremu jorratuko dituzte: jarduerak fisikoa eta elikadura, zahartzea eta afektibitatea eta gure herrian zahartze aktiboa nola lortu daitekeen.

XXI. Osasun jardunaldiak: Zahartze aktiboa

Astelehena 25

"Jarduerak fisikoa eta elikadura osasungarria". Hizlariak: Enrique Contreras, Osasun zentroko zuzendaria; Yolanda Atorrasagasti, familia medikua eta Karlos Altuna, Kirol Zerbitzuko arduraduna.

Astearte 26

"Zahartze aktiboa Gizarte Zerbitzuetatik". Hizlaria: Maite Higuero, Gizarte Zerbitzuko arduraduna.

Asteazkena 27

"Zahartzea eta afektibitatea, pozez beteriko sexualitatea". Hizlaria: Aingeru Mayor, Sexologia

Osteguna 28

"Zahartze aktiboa, Lasarte-Oriako komunitatean esperientzia bat" aurkezpena. Hizlariak: M^a Jose Goñi, Gizarte Zerbitzuetako langilea eta Makarena Dominguez, Komunitate agentea

jaialdia antolatzen du. Honetan umorez eta musikaz betetako sketchak dira ikusgai. Sarrera doan.

Bakarriketa

ABEND KAFE ANTZOKIA

Larunbata 30, 00:00etan

Mikel Bermejo herritararen eta Andres Pulido madrildararen bakarriketaz gozatzeko aukera izango da.

Zinea

MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEA

Igandea 1, 17:00etan

Haurrentzako zinea atalean, "Justin y la espada del valor" filmaz gozatzeko aukera izango dute etxeko txikiak. Sarrera, leihatlan 3,60 euro; internet bidez, 3,18 euro.

Igandea 1, 19:30ean

Helduentzako zinea, "El mayordomo" filma eskainiko da. Sarrera, leihatlan, 5,85 euro; internet bidez, 5,30 euro.

Lasarte-Oria

Genero indarkeria

OKENDO PLAZA

Astelehena 25, 19:00etan

Emakumeen aurkako indarkeriaren egunean elkarretaratzea izango da.

Ipuin-kontalaria

MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEA

Osteguna 28, 18:00etan

Kontu kantoi-ko lagunek 6, 7 eta 8 urteko haurrei zuzendutako ipuinak kontatuko dituzte. Hauek irudikatuko dituzte ere.

Musika

AMA BRIGITARREN KOMENTUA

Ostirala 29,

19:00etan

Danak Kide elkarteak antolatzen duen Musika Topaketen barruan, "Organo eta ahots" kontzertua izango da Ana Belen Garcia organu jolea eta Marife Nogales sopranoaren eskutik.

ZULO ARETOA

Ostirala 29, 23:30ean

Blami Dj-aren saioa izango da.



Larunbata 30, 22:30ean

"Basura" eta "Odio" taldeen kontzertua izango da.

SIGLO 20 TABERNA

Larunbata 30, 19:00etan

II. Orto Rock Festivala antolatuta da. Musika estilo honetako hainbat taldez gozatzeko aukera izango da.

Jaialdia

MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEA

Larunbata 30, 18:30ean

Jalgune elkarteak urritasuna duten pertsonen eguna ospatzeko urtero

Erakusketa

JALGI KAFE-ANTZOKIA

Azaro bukaera arte

"Euskal Jaiak" argazki zaharren erakusketa izango da ikusgai.

Andoain

Erakusketa

BASTERO KULTURGunea

Urtarrilaren 14a arte

Gervasio Sanchez argazkilariren "Desaparecidos" erakusketa ikusgai izango da. Hainbat herritan desagertu diren salaketa.

Herritarren txokoa

Odol ateratzea

Hileroko azken astelehenero bezala, odol ateratzeak egingo dituzte Osasun Zentroan azaroaren 25ean, arratsaldeko 17:30etik 20:30era. Anima zaitzete, odola ordezkazina da eta odol falta dago!

Lasartearra elkarteko barrikotea eta loteria

Lasartearra elkartek bazkideei eta lagunei jakinarazten die, urtero antolatzen den barrikoterako izena ematea ireki dela. Barrikotea abenduaren 14an izango da. Elkarte zuzendari-tzak jakin arazi duenez, abenduaren 8a izango da izena emateko azken eguna.

Era berean, Gabonetako loteriako txartelak salgai ditu. Hauek eskuratzeko, elkarteko egoitzara, Erribera Kalea 10 atzealdean, hurbildu behar dira interesatuak.

Ingeles Mintzapraktika

Ingelesa ikasten ari garen lagun talde bat gara eta astean behin ikastakoa praktikan jarri nahi dugu.

Ingeles maila ertaina edo gehixeago baduzu eta zuk ingeles mintzapraktika

nahi baduzu, jarri gurekin harremanetan, solaskideinglesa@gmail.com.

Marrazki eta margo klaseak

Lasarte-Oria Bizilagun Elkarteak jakinarazten du, marrazki eta pintura klaseetan izena emateko aukera dagoela. Klaseak asteazken eta ostiralean dira, 18:30etik 20:30era Manuel Lekuona kultur-etxeko 2. solairuan. Interesa duten herritarrek gerturatu daitezela klase orduetan.

Erketz-eko taldeen entseguak

Erketz EDT eta Erketz-eko Lagunak taldeak lanean ari dira. Erketz-eko Lagunak taldeak asteartean egingo ditu saioak eta Erketz EDT-ko kideek, berriz ostegunetan. Entseguak Zumaburu ikastetxeko gimnasioan izango dira, 20:00etatik aurrera ohi bezala.

Era berean, 5 urteik aurrerako haur eta gaztetxoek ere Erketz Txikin dantza egiteko aukera izango dutela gogoratu dute.

Azalpen edo informazio gehiago eskuratu nahi dutenek 635 746 028 telefono zenbakia 2028 eskura dantza taldeak.

Eskutitza

Errauste plantarik ez, berri ona

Berri ezin pozgarriago bat jaso dugu: EZ da ERRAUSTE PLANTARIK erailiko Gipuzkoan. Denbora, diru eta ahalgin asko geratu dira bidean. Milaka pertsonak eskaini dute euren denbora eta kementa ingurumenaren eta osasunaren alde; dirua, berriz, lotsagabe gutxi batzuek lapurto diete gipuzkoarrei, euren interes ekonomikoak jarri ditzutelako ongizatea baino lehenago. Pertsona bartzek horiek ari dira oztopak jertzen hondakinak kudeatzeko sistema jasagarri bat Gipuzkoan ez ezartzeko; horretarako, sustatzen dituzte solidarioak eta gizatiarrak ez diren jarrerak.

Ospatzen dugu ERRASTE PLANTA EZ erailitzeko erabakia. Oztopo handi eta zail bat gutxiago, zero zabor filosofia ezartzeko bidean. Horixe da orain kementa indarrez lortu behar dugun helburua. Gipuzkoan milaka dira herritarrek hondakinak %70 baino gehiago gaika biltzen dituztenak; bide hori oraindik egiteko dugu Lasarte-Orian. Helburuak argiak

dira, eta hainbat herritan frogatu dute bete daitezkeela.

Lasarte-Oriak ere aurrerapausoa eman behar du alor horretan; ezin du azkeneko postuetan geratu, hondakinak gaika biltzeari dagoionez.

Lasarte-Oria Zero Zabor

Zuen oharrak jarri, kekak adierazi edo eskutitzak argitaratzeko: Geltoki kalea, 4 943 366858

txintxarri@txintxarri.info

"Zentroa erreferentziala izatea nahi dugu"

► *Sexu informazio eta aholkularitza zerbitzua eta emakumeen egoera herrian zein den ezagutzeko azterketa martxan dira* ► *Bi lanek Lasarte-Orian sexuen arteko oreka bilatzea dute helburu*

Emakumeen zentroa aurkeztu zuten ostiralean sexu informazio eta aholkularitza zerbitzu berria, sexuen araberako egoera herrian zein den ezagutzeko egingo den diagnosiarekin batera. Honetan Maite Higuero udaleko emakume arloko arduradunak, Oscar Aranda berdintasun teknikaria eta sexologoak eta berdintasun teknikariak diren Yoana Azipartea eta Maria Salsamendik azaldu zituzten bi ekimen hauen nondik norakoak.

TXINTXARRI

2003. urtetik dago zabalik Emakumeen udal zentroa Lasarte-Orian. Urte hauetan egindako ibilbidea arrakastatsua dela iritzi arren, Maite Higuero azpimarratu nahi izan zuen ostiraleko agerraldian "bi urteko hausnarketa sakonaren ostean, zentroak zerbitzu berriak eskaintzearen beharra ikusi zen".

Horrela izanda, "zegoena hobetzeko asmorekin, zerbitzua profesionalizatu da eta herrian gaiaren inguruan diagnostiko edo azterketa sakon bat osatzeaz gain, sexu informazio eta aholkularitza zerbitzua izango da aurrerantzean lasarteoriar gutzieren eskura".

Hauetik egoera zerbitzuarakin uztartuko direla azaldu zuen udaleko Emakumeen arloko arduradunak.

Emakumeak herrian

Diagnosi bat egin nahi da "sexuen araberako desoreka ezabatze, sexuen arteko berdintasuna sustatze aldera, pertsonen autonomia sustatzeko eta batez ere sexuen arteko bizikidetzeta hobetzeko" azaldu zuten Yoana Azipartea berdintasun teknikariak.

Hori litzateke "gure helburu orokorra eta horretarako Emakumearen Zentroa erreferentzialako espazioa bilakatzeko nahi dugu".

Helburu hori lortzeko egingo da aipatutako diagnostikoa, "ulertzeko, emakumeen parte hartze efektiboa sustatzeko eta bermatzeko tokiko diagnostikoa bertan ematen diren baldintzak kontutan hartuz".

Azterketa sakon honek lan esparru antizak dituela azaldu zuten teknikariak. "Helburu zehatzak aipatu aldera, izango lirateke, herriko gizon eta emakumeen egoera zein den ezagutu eta identifikatzea hauek non dauden gizarako esparru guztietan hau da, kontziliazioan, egoera laboralean, hezkuntzan, osas-

sunean, Herriko egoera zein den ahalik eta hoberen jakin nahi dugu, zehazki herriko emakumeen egoera ezagutzeko arlo guztiak aztertu behar ditugu".

Elkarlana

Azken urteetan sexuen artean gertatu diren aldaketak aztertu nahi dira ere. "Lan honek bi atal nagusi izango ditu. Batek zentroko erabiltzaileekin lanketa bat egingo da, parte hartzaileen interesak, beharrak aztertzeari garrantzia eman nahi diegu. Zentroak beti parte-hartze handia izan duelako eta iruditzen zaigu abiapuntua erabiltzaileak, emakume hauek dira. Hauetaz galdetuko zaie nola ikusten duten herrian emakumearen egoera".

Lehen hausnarketarako dagoeneko talde txo bat eratu dela azaldu zuten teknikariak, 15 emakume elkartuko dira eta aste honetan bertan izango da lehenengo bilera.

Kanpora begirako azterketa osatuko luke diagnosiak. Honen baitan lau esparru aztertzeko direlarik, "batekik udal teknikariekin egon nahi dugu beraien ikuspegitik, herriko errealitate zein den jasotzeko baita udal zerbitzuetan emakume-gizon erabiltzaile kopurua etab-
en inguruan datuak jaso ahal izateko".

Bigarren lan esparrua, udalaren esku ez dauden zerbitzuak lirateke: Lanbide, Osasun Zentroa, eskolak... Hauetaz aipatutakoek gain, orain arte zentroarekin zein harreman izan duten ezagutu eta elkarlaneanako bideak zabaltzea aurrerikusten dute teknikariak.

Beste lan arlo garrantzitsua, herriko elkarrekin egingo dena izango da. "Harremanetan jarriko gara eta beraien lanera, egunerokora gerturatuko gara hauen ibilbidea zein den ezagutu eta zein periferiko jendea duten euren baitan ikusi. Hauetaz ere elkarlan posibleak landu nahi dira".



Yoana Azipartea teknikaria, Maite Higuero arloko arduraduna, Maria Salsamendi teknikaria eta Oscar Aranda sexologoa.

Azkenik "ahalik eta iritzi gehien jaso nahi dugunez herritarrengana joko dugu, tailer-bilerak, solasaldiak antolatuz iritziak jasoko ditugu". Hau gauzatuko dute Parte-Hartze teknikariarekin batera eta agian auzokako bilerak eta dinamika antolatuta.

Diagnosi prozesu luzea dela azaldu zuten "nahiz eta matxan egon, lau urte inguruko lanketa izango dela ueste dugu". Orain arte baruko lanean dihardutela aipatu dute teknikariak.

Sexologoaren lana

Sexu informazio eta aholkularitza zerbitzuari dagokionez, Oscar Arandak gidatuko du.

Sexologoak azaldu zuen zerbitzu integrala eskaintzea bilatzen duela. Sexu informazio eta aholkularitza oso desberdinak direla aipatu zuen eta bigarrena, "oso lan sakona da. Aholku profesionalen datua eta zalantzak, kezak lantzeko litzateke. Sexualitatearekin zerikusia duen edozein zalantza argitze bategi gaude. Adibidez guraso batek kezka eduki dezake bere alaba edo seme nerabeak hasi berri duen lehenengo bikote harremanaren inguruan. Horren aurrean nola jokatu behar duen zalantzak baditu, guregana etor daitezke. Zalantzak argitu eta orientatzeko gaude".

"Proiektu integrala da, biztanle guztiak zuzenduta dago".

Bulegoak sexu bizitza, sexu bizipen, sexu aukera, sexu informazioa eta aholkularitza landuko ditu.

Hezkuntza alorrean egin zen sexuen arteko indarkeria saihesteko helburua izango du zerbitzua. Hau ere bulegotik kanpo eskainiko da, karp informatiboak jarriko dira, Gaztelekuan ekitzak antolatuta, herriko eskolatan landu eta guraso eskolak egingo dira besteak beste.

Zerbitzua norbanakoa zein taldekakoa izan daitezkeela argitu zuen Arandak, "bakarrik, bikotearekin zein koadrilarik etor daitezke herritarrek euren zalantzak, kezak argitzera".

Hitzordua emango da aurrez eskatzen bada baina bestela gertura-teea besterik ez dute.

Ostiralean 16:00etatik 20:00etara eskainiko da zerbitzu hau. Horretaz gain galdarik telefonoz 943 363958 zen emailaz helarazi emakumezentroa@lasarte-oria.org, edo laister sare sozialen, Facebook eta Twitter, bidez jaso eta erantzungo dira.

Sexologia zerbitzuarren

helburuak Oscar Arandaren hitzetan; "sexualitatearen inguruko zerbitzu integral bat eskaintzea da, sexualitate positiboa landu, kezak eta zalantzak konponketara bideratzeko aholkularitza eskaini, ohiko mito eta tabuak ezabatu eta informazio zerbitzu profesionala ematea da".

Zerbitzu berri hauen zabalduerako kalera ateratzea beharrezkoa izango dela argi dauka Higuero, "herriko eragile eta erakundeetara gure lanaren berri eman behar diegu eta elkarlanean bideak erai-ki".

Zerbitzua edozein herritarrentzako zabalik dagoela azpimarratu nahi izan dute, "gizon zein emakume, gazte zein zahar".

Zentroko teknikariak herritarak animatzen dituzte edozein momentutan bertaratzea "eta noski zerbitzu berriaren inguruko informazioa eskatzeaz gain, aurrerantzean egingo ditugun ekitzetan parte hartzea".

